

**Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala**



**Boletín
Oficial de
Gipuzkoa**

249

2020ko abenduaren 30a, asteazkena

1

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

499/2020 Foru Agindua, abenduaren 18koa, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 26ko 553/2017 Foru Agindua, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 eredu onartu eta hura aurkezteko modu eta epeak ezartzen dituena.

COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi egoera gertatu zenetik, Gipuzkoako Foru Aldundia hainbat izaeratako premiazko neurriak onartzen eta hartzen joan da, larrialdi horrek zergapekoei ekarri diezaiekeen eragin ekonomiko negatiboa aritzeko.

Helburu horri begira, hainbat foru dekretu arau onartu dira, aparteko egoera honi erantzuteko ezarritako neurrien ondorioei aurre egite aldera.

Zergak eraginkortasunez kudeatzearren neurri horiei jarraipen erraz bat egiteko, beharrezkoa da ahalik eta informaziorik zehatzena lortzea.

Horretarako, bost aldaketa sartzen dira 190 ereduaren erregistro diseinuetan («Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena»).

Aldaketa horiek guztiak «Azpigakoa» eremuarekin lotua daude, zehazki II. eranskineko diseinu fisiko eta logikoen 2. erregistro motan (ordainketa erregistroa) hartutako 79-80 posizioei.

Lehendabiziko aldaketaren bidez, B gakoari dagozkion ordainketetan erabili beharreko 27 azpigako berri bat sartzen da. Azpigako horretan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsi gabe dauden ordainketak zerrendatzen dira, hain zuzen ere bai Gizarte Segurantzaren erregimen publikoen eta klase pasiboen pentsioei eta hartzeko pasiboei eta bai zergaren foru arauak 18.a) artikuluan jasotako gainerako prestazioei dagozkienak.

27 azpigakoaren bidez, bi prestazio mota hauek argi eta garbi identifikatu nahi dira: batetik, COVID-19aren ondorioz zer langabezia prestazio jaso duten errenta moduan aldi baterako enplegu erregulazioko espediente batek (ABEEE) edo enplegu erregulazioko espediente batek (EEE) edo jarduera galtzeak edo deuseztatzeak eraginda dauden borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako bazkideek, baldin eta aplikagarri bazaie abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoak, 2. artikuluan xedatutakoa; bestetik, zer prestazio jaso duten kapital moduan borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetan, pentsio planetan, aurreikuspen plan aseguratuetan, gizarte aurreikuspen plan enpresarialetan eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan partaide direnek, baldin eta COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoeraren eraginez langabezian gelditu badira edo jarduera egiteari utzi badiote, betiere maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koitunturazko zerga arloko neurriei buruzkoak, 5. artikuluan aipatutako prestazioak direnean.

Gainerako aldaketak L gakoari dagozkion ordainketekin lotuta daude. Gako horren barruan, errenta salbuetsiak eta kargatik salbuetsitako dietak zerrendatzen dira. Zehazki, 08 azpigakoa aldatzen da, eta 42, 43 eta 44 azpigakoak gehitzen dira.

08 azpigakoa aldatzen da, amatasun eta aitatasun prestazioei eta bizitzeko gutxieneko diru sarreraren prestazioei buruzko argipena sartzeko asmoz. Izan ere, prestazio horiek ez dira 08 azpigakoan sartu behar, baizik eta hurrenez hurren 27 eta 43 azpigakoetan.

42 azpigakoa gehitzen da, osasun langileen aldeko doako aseguru kolektibotik eratorritako prestazioen salbuespena identifikatzeko asmoz. Izan ere, salbuespen hori jasota dauka 16. artikuluan maiatzaren 26ko 5/2020 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koitunturazko zerga arloko neurriei buruzkoak.

43 azpigakoa, aldiz, bizitzeko gutxieneko diru sarreraren salbuespena aitortzeko asmoz gehitzen da. Urriaren 13ko 8/2020 Foru Dekretu-Araua, COVID-19aren zenbait ondorio arintzeko presako neurri osagarriei buruzkoa, onartzean, h) letra bat gehitu zitzaion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 9. artikuluko 12. zenbakiari.

Azkenik, 44 azpigakoa gehitzen da, bertan sartu nahi baitira norbere kontura edo autonomo gisa ari diren langileentzako aparteko laguntzak, zeintzuk jasota baitaizka 7. artikuluan abenduaren 1eko 1/2020 Foru Dekretu-Arauak, COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presako neurriei buruzkoak.

Horiek horrela, beharrezkoa da abenduaren 26ko 553/2017 Foru Aginduaren I. eranskina ordezkatzeko eta foru agindu horren II. eranskinari buruzko alderdiak aldatzea

Horiek horrela, hau.

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea abenduaren 26ko 553/2017 Foru Agindua, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 eredua onartu eta hua aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dituen.

Honela aldatzen da abenduaren 26ko 553/2017 Foru Agindua, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 ereduaren onartu eta hura aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dituen:

Bat. Foru agindu honetako 190 ereduaren I. eranskinaren ordez, eranskin berria ezartzen da.

Bi. Aldatu egiten da «Azipigakoa» eremuaren edukia, zehazki II. eranskineko 190 ereduaren diseinu fisiko eta logikoen 2. erregistro motan (ordainketa erregistroa) 79-80 posizioak hartzen dituen. Honela idatzita gelditzen da:

a) 27 azpigako berri bat sartzen da, B gakoari dagokiona. Hona hemen haren edukia:

«27: PFEZaren Foru Arauaren 70.1 artikuluan aipatzen diren BGAEetako, pentsio planetako, aurreikuspen plan aseguratuetako, gizarte aurreikuspeneko plan enpresarialetako eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateetako bazkideek COVID-19aren ondorioz ABEEE bat edo EEE bat jasateagatik edo jarduera galdu eta uzteagatik jasotako langabezia prestazioak.»

b) Aldatu egiten da 08 azpigakoa, L gakoari dagokiona. Honela idatzita gelditzen da:

«08: PFEZaren Foru Arauaren 9.12 artikuluan jasotakoaren arabera salbuetsita dauden prestazioak, pentsioak eta hartzeko pasiboak; bertan ez dira sartuko amatasun eta aitatasun prestazio salbuetsiak eta bizitzeko gutxieneko diru sarreraren prestazioak, eta hurrenez hurren 27 eta 43 azpigakoetan sartu beharko dira.»

c) 42, 43 eta 44 azpigakoak gehitzen dira, L gakoari dagokionak. Hona hemen haien edukia:

«42 azpigakoa: COVID-19ak eragindako gaixotasun kontingentziagatik ordaindutako prestazioak, aseguru etxeek Espainiako Aseguru eta Berraseguru Enpresen Elkartearen bidez osasun langileen alde izenpetutako doako aseguru kolektibotik eratorriak direnean.

43 azpigakoa: Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio ekonomikoak, maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-Dekretuaren arabera jasotakoak.

44 azpigakoa: Norberaren konturako langileei edo langile autonomoei Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek emandako dirulaguntzen edo aparteko laguntzen zenbateko salbuetsiak, horiek jasotzeko arrazoi baldin bada haien jarduera eten, geldiarazi eta larriki kaltetu dela agintari eskudunek COVID-19a dela eta hartutako neurriengatik.»

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea eta aplikatzea.

Foru agindu hai Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2020ari dagokionez 2021ean aurkeztuko diren aitorpenetarako aplikatuko da lehendabiziko aldiz.

Donostia, 2020ko abenduaren 18a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(6899)

